

STARTINNOVA: FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresak behar izango dituen funtsezko baliabideak bi taldeetan banatzen dira: ukigarriak eta ukiezinak. Ukigarrien artean fisikoak eta finantza baliabideak fisikoak daude. Era berean, ukiezinaren artean, baliabide intelektualak eta giza baliabideetan banatuta daude.

-Baliabide ukigarriak:

Baliabide ukigarrien artean, baliabide fisikoak eta finantza-baliabideak daude.

Baliabide fisikoak gure enpresen bulegoak izango dira eta barruan egongo diren makinak, gure enpresa funtzionamenduan mantentzeko: ordenagailuak, mugikorak, hodieko elektrizitatea kudeazio tresnak (kuadro-elektroa), tximista-orratzak, erositako lurra tximistorratzak eraikitzeke, tximistorratza bera eta osatzen dituzten zatiak, elektrizitatea garraiatzeko behar diren hodi handiak.

Finantza-baliabideak behar izango dugun kapitala da. Diru-iturrietan azaldu dugun bezala, hainbat iturrietatik lortuko dugu behar den dirua proiektu hau aurrera eramateko. Hasieran "crowdfunding" eta gure politiskoti ateratako dirua erabili behar izango zen hasierako inbertsioa egiteko. Enpresaren hasierako pausuak ematea oso gogorra izango da, baina hori gainditzean bidea izugarri erraztuko da.

-Baliabide ukiezinak:

Baliabide ukiezinaren artean giza baliabideak eta baliabide intelektualak daude:

Giza baliabideak izango dira gure fabriketak edo tximistorratzak eraikitzeaz arduratzen diren langileak. Haien lana mekanikoa izango denez ez da beharko edozein motatako intelektueltasunik.

Baliabide intelektualak berriz gure enpresan garrantzi handia izango duen sektorea da. Adibidez, ingeniariak edo ikertzaileak. Jakiteko non produzitu behar diren osagaiak dirua aurrezteko, zer nolako garraioa den egokiena leku batetik bestera eramateko beharrezko materialak, errendimendua %100 izateko tximistorratzen neurria eta non eraiki behar diren zehaztea. Gainera baita proiektuaren bidegarritasuna ere jakitea beharrezkoa da. Gure bulegoetan lan egingo dute eta baliabide fisikoaz baliatuz edozein motatako saiakuntzak edo probak egiteko aukera izango dute.